BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

4793

EBAZPENA, 2011ko abuztuaren 10ekoa, Osasun Publikoko zuzendariarena, oinarrizko mailako ikastaroa –Irungo «Sanea Control SL» sozietateak 2011ko ekainean emandakoa– gainditu duten ikasleei ingurumenerako eta elikagaien industriarako diren tratamendu bioziden aplikatzaile txartela (oinarrizko maila) banatzeko baimena ematen duena.

Ikusi da Erandioko «Sanea Control SL» (Ames, A Coruña) sozietateak bidali duen dokumentazioa, 2011ko ekainean emandako ikastaroen garapenari eta ikasleek ateratako probetxuari buruzkoa. Ikastaroa: ingurumenerako eta elikagaien industriarako diren tratamendu bioziden aplikatzaileentzat (oinarrizko maila).

Kontuan izan behar da Osasun Publikoko Zuzendaritzak 2010eko ekainaren 3ko Ebazpenaren bidez baimena eman ziola «Sanea Control SL» sozietateari maila kalifikatuko ikastaroak emateko. Ebazpen hori, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofiziala sortzen duen abenduaren 21eko 257/2004 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatzeko eman zen. Horiek horrela, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Ingurumenerako eta elikagaien industriarako diren tratamendu bioziden aplikatzaile txartela (oinarrizko maila), ebazpen honen eranskin modura doan zerrendako pertsonei emateko agintzea.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Osasuneko sailburuordeari, ebazpena argitaratu eta hilabeteko epean,

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abuztuaren 10a.

Osasun Publikoko zuzendaria,
MERCEDES ESTÉBANEZ CARRILLO.

ERANSKINA

INGURUMENERAKO ETA ELIKAGAIEN INDUSTRIARAKO DIREN TRATAMENDU BIOZIDEN APLIKATZAILE TXARTELA (OINARRIZKO MAILA) ESKURATZEKO BAIMENA EMAN ZAIENEN ZERRENDA

Izena	1. abizena	2. abizena	NAN	Txartel zk.
Nicolás	Callejas	Seco	15985849K	0044/2011
José Ramón	Fernández	Lamas	76406820S	0045/2011
Juan Andrés	Lema	López	34089424C	0046/2011
Manuel	Matelo	Morgado	34087246G	0047/2011
Isidro	Rodriguez	Bustamante	14387859W	0048/2011
Saúl	Rodriguez	Contreras	44149791A	0049/2011
Isidro	Rodriguez	Mendieta	44556813V	0050/2011
Pedro	Valle	Alvarez	15921157M	0051/2011
Máximo	Vicente	Martin	07769140Q	0052/2011
María Antonia	Zulueta	Herrán	30659218B	0053/2011